

## IKASTETXEETARAKO GABONETAKO KANPAINAREN PROPOSAMENA

### Sarrera

Bilboko Elizbarrutiko Caritasen “Erdu Te invito” Gabonetako kanpainak migratzaileen eta errefuxiatuen inguruan zentratu nahi du arreta; hau da, gurea ez den beste kultura, arraza, erlijioa... duten pertsonengan. Hezkuntza komunitate solidario, abegitsu eta inklusiboa izaten ikasi nahi dugu.

Jesus ere kanpotarra zen; emigratu egin behar izan zuen. Orain, berak gure bihotza zabaltzera animatu nahi gaitu, harresiak jartzen dituzten, axolagabekeria edota gorrota sortzen duten aurreiritziak albo batera uztera. Gure zentzumenak zorrotzu eta gure kristau balioekin sintonizatu behar dugu, pertsoneri begiratu eta ondo ikusteko, beren azalaren kolorea, erlijioa, jatorria edota janzkera edozein direla ere.

Gabon garaia itxaropen garaia da; argia emateko garaia. Mundua abegiz, zintzotasunez eta epeltasunez argiztatu behar dugu, eta “kanpotarrak” geure artean hartu. Horregatik, garrantzitsua da ateak ireki eta bizi-esperientzia horiek ikusaraztea; desberdintasun guztiak ohiko bihurtuz, eta arrotza den guztia etxekotuz.

### Dinamika

Espazioa eta banaketa prestatuko ditugu, parte-hartzaile guztiak kanpainaren kartela ondo ikusteko. Bi une bereizi landuko ditugu:

- Irudiari begira, eta galdera batzuen laguntzaz, sortzen diren iradokizunak jaso eta partekatzea.
- Banaka edo taldean konpromisoak hartzea, abegitsu izateko asmoz.

Hartutako konpromisoak partekatu daitezke eta, saioa bukatzeko, abesti bat kantatu edo oititz egin.



## **5 eta 12 urte bitartekoentzako dinamika**

Kanpainaren kartela aurkeztu eta minutu batzuk utziko ditugu parte-hartzaileek ondo begiratzeko: irudia, xehetasunak, metaforak... Galdera hauetakoren bat planteatu daiteke:

- Zer ikusten duzu kartelean? Zerk ematen digu arreta?
- Zer dakarkigu gogora? Zer uste duzu esan nahi digula irudi honek?
- Zer desberdintasun daude zure bidearen (zure bizitza) eta marrazkian dauden pertsonen bidearen artean? (eskubideak; etxea, osasuna, ziurgabetasuna, emozioak, harremanak, eta abar).
- Imajinatu hor zaudela. Non kokatuko zenuke zure burua? Zergatik? Zer egingo zenuke?
- Zer uste duzu esan nahi dutela hesi irekiek? Normalean horrela egoten dira?
- Zertan ari dira irudian agertzen diren pertsonak?
- Norantz doaz?
- Nola uste duzu pasako dituztela Gabonak? Familia osoa elkartuko al da? Zer jango dute? Zer opari izango dituzte?
- Zein amets eta desio uste duzu dituztela pertsona horiek Gabonetarako? Eta bizitzarako?
- Nola uste duzu sentitzen direla?

Dinamizatzailerak elementu batzuk sar ditzake, ez badira sortu: Itxaropena, Misterioa, hesia, bidea, etorkizuna, harrera, ospakizuna, onarpena, kanping-dendak, azalaren kolorea, aurreiritziak...

Sortutako gaiak hainbat modutan jaso daitezke:

- ✓ Kartelean pertsonaiaren bati mezu bat idaztea. Mezu zuzena, pertsona horri entzutea gustatuko litzaiokeen zerbait.
- ✓ Mezu guztiekin kartel handi batean collage bat egin eta ondo ikusteko moduko leku batean jartzea, zabalkunde eta sentsibilizazio ekintza moduan. Argazki eta irudiak jar daitezke.
- ✓ Animoa eta itxaropena emateko bideo laburrak grabatzea, beren herritik irten beharra izan duten eta bide luze eta zaila egiten ari diren errefuxiatuentzat.
- ✓ Twitterren mezuak idaztea, dinamika azalduz eta idatzitako mezuak transkribatuz. Horrela, hausnartutakoa zabalduko da eta sentsibilizazioa egingo da.

Kartelean Frantzisko Aita Santuak idatzitako testu bat agertzen da: “Mugarik gabeko komunitate bat, ateak zabalik, bizi bila dabilen pertsona ororentzat”. Denok egin dezakegu zerbait. Zein keinu txiki egin dezakegu pertsoneri beren koloreaz, janzkeraz eta iritziaz harago begiratzen ikasteko? Ikusitako eta hitz egindakoa ostean, maila indibidualean edo talde gisa konpromiso bat hartzera animatuko ditugu. Txartel batean idatziko dugu zein konpromiso har dezakegun. Urtarrila-otsailean konpromiso horiek berrikustea ideia ona izan daiteke.

Idea batzuk:

- Jendea ondo tratatu, besteek zu tratatzea nahiko zenukeen moduan.
- Edukazioz jokatu.
- Pertsona guztiak baloratu.
- Gainerako pertsonen ideiak aintzat hartu.
- Gaizki-ulertuak hitz eginez konpontzen dira, besteak epaitu gabe.
- Ez egin komentario gaiztorik eta ez egin kasu zurrumurruei; horrela ez goaz inora.
- Errespetua tolerantzia da: Baloratu desberdintasunak.
- Errespetua modu askotan adieraz daiteke: Entzunez, aurreiritziak alde batera utziz, adeitasunez, beste pertsonen lekuan jarriz...
- Itxuraz eta arropaz harago... oso desberdinak diruditen pertsonak ezagutzen saiatuko gara. Gauzak ez dira diruditena.
- Norbere ideiak adierazteko ausardia, betiere, besteen ideiak errespetatuz.
- “Isiltasunaren zirkulu” batean parte hartzea. Hilabete bakoitzeko azken asteazkenean egiten dira.

### 13 eta 18 urte bitartekoentzako dinamika

Kanpainaren kartela aurkeztu eta minutu batzuk utziko ditugu parte-hartzaileek ondo begiratzeko: irudia, xehetasunak, metaforak... Galdera hauetakoren bat planteatu daiteke:

- Zer ikusten duzu kartelean? Zerk ematen digu arreta?
- Imajinatu hor zaudela. Non kokatuko zenuke zure burua? Zergatik? Zer egingo zenuke, zer esango zenuke, zer entzungo zenuke? Zergatik?
- Zenbat kiloko ekipajea eraman daiteke bidaia horretan? Zenbat denborako bidaia da? Zein baldintzatan? (higienea, osasuna, elikadura, jantziak, atsedena...)
- Hesiak jartzen al ditugu gu ez bezalakoak diren pertsonen aurrean? Zergatik?

Dinamizatzaileak elementu batzuk sar ditzake, ez badira sortu: Itxaropena, Misterioa, hesia, bidea, etorkizuna, harrera, ospakizuna, onarpena, kanping-dendak, azalaren kolorea, aurreiritziak...

Kartelean Frantzisko Aita Santuak idatzitako testu bat agertzen da: “Mugarik gabeko komunitate bat, ateak zabalik, bizi bila dabilen pertsona ororentzat”. Denok egin dezakegu zerbait. Zer egin dezakegu? Zein aukera ditugu mundu inklusibo eta abegitsuago bat sortzeko?

Pertsona bakoitzak txartel hauetako bat hartuko du, honako mezua dutenak:

*“Ez dut nahi arraza, jatorri etniko, nazionalitate, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein faktore ZURE eta NIRE artean sartzerik, zatozen lekutik zatozela ere”.*

Atzeko aldean ekintza zehatz bat idatziko dugu; migratzaile, errefuxiatu eta abarrekin abegitsuago izateko egin dezakeguna. Diru-zorroan, barik txartelaren edo mugikorraren zorroan gordeko dugu... beti aldean eramaten dugun lekuren batean.

